



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezeziel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2016ko irailaren 14an, 08:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko 2 Bilkureko aktei. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu dira aktak.

2. HIRIGINTZA UDAL PLANA.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak xedatzen duen prozedura jarraitu eta gero, 2015eko urtarrilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, behin-behineko onespena eman zitzaion Zubietako Udalaren Plan Orokorrari.

Espediente osoa aurkeztu zen Sustapen Departamentuan, behin-betiko onestea eskatuz.

Jarraian, txosten berriak eman ziren Udalari errekerimenduak eginez. Txosten horien eskakizunak sartu ziren Plan Orokorrean, Zubietako Udalaren Plan Orokorraren Testu Bategina osatuz. Testu hori onetsi zuen Udalak, 2015eko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran eta Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Departamentura bidali zen, behin-betiko onespenerako.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuak behin betiko onespenerako txosten berria egin zuen, Udalari errekerimenduak eginez. Txosten horren eskakizunak sartu dira Plan Orokorrean.

Aurrekinak ikusirik eta arkitekto-erredaktoreen txostena eta agiri berriak aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. F.J.C.S.M. jauna eta M.U.F. andreak egindako Zubietako Udalaren Plan Orokorraren agiri berriak onestea. Behin-behineko onespentzat hartzen da erabaki hau.

2. Agiriak bidaltzea Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Departamentura, behin-betiko onespenerako.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. ZUBIETAKO MENDIKO PISTA ETA BIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

Nafarroako Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoa kontutan hartuz, aho batez (arazko quoruma) erabaki da:

1. Hasiara batean onestea Zubietako mendiko pista eta bideen erabilera arautzen duen ordenantza.
2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, 30 laneguneko epean jendaurrean egoteko.
3. Aditza ematea erabaki hau behin betikoa bilakatuko dela jendaurrean egon bizkitartean inork alegaziorik aurkezten ez badu.

4. ZENBAIT ESKARI.

1. J.M.A.I.k agiriak aurkeztu zituen, 4 poligonoko 108 partzelaren ondoan dagoen lursail zati baten jabetza erreklamatu. Egun herrikoa da zati hori katastroan. Aho batez erabaki da eskaerari buruzko txostena eskatzea TRACASari.

2. A.J.O.k eskatu zuen, *Mindegia etxeko* garajeko ataria oztoporik gabe egotea, autoa sartu eta atera ahal izateko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da *Anteskoa etxeko* bizilagunei jakinaraztea, garaje haren sarrera libre utzi behar dutela, maniobra-arazoak ez eragiteko autoen sarrera-irteeran.

3. Zubietako Udalak zehatz-mehatz espedientea bete ondoren, 328/1996 Foru Dekretuan ebatzi zen, katastroko 3 poligonoko 9 lurzatiaren (*Gorospillaga* parajea) puska bati dagokion 2.975 metro karratuko herrilurraren onura publikokoa deklaratzeko eta haren desafektazioa onestea. Desafektazioaren xedea zen, lur hori trukatzeko S.O.N. jaunarenak diren 3 poligonoko 21, 22 eta 23 lurzatiekin, *Gorospillagako* birlanaketa handitzeko. Eskriturak egin gabe geratu ziren bere garaian eta O. jaunak eskatu du egoera konpontzea. Eskriturak egitea erabaki da aho batez.

5. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza:

- 2016/54 zenbakia, 2016ko ekainaren 22koa, *Iziarreko borda* erreteilatzeke lizentziaren epe-muga luzatu ziona M.L.ri.
- 2016/55 zenbakia, 2016ko uztailaren 5koa. *Bioleta* parajea —*Arrataburu*— (3 poligonoko 134, 135 eta 136 partzelak) oihan-aprobetxamendua ateratzeko baimena eman zion Mendietako Zerbitzuak J.L.E.ri eta herri bidea zabaltzeko baimena eman zion ere, egurra atera ahal izateko. Bidea zabaltzeko baimena eman zitzaion Ebazpenean.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

- 2016/56 zenbakia, 2016ko uztailaren 5koa, *Arrotzubi* parajea oihan-
aprobetxamendua ateratzeko, L.M.k ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/57 zenbakia, 2016ko uztailaren 7koa, *Erdozelaieta* eta *Ameztiako*
parajeetan oihan-aprobetxamenduak ateratzeko, S.I.k ordaindutako fidantza itzultzea
erabaki zuena.
- 2016/58 zenbakia, 2016ko uztailaren 7koa, B.I.ri lizentzia eman ziona, *Zubitea*
etxeko fatxadak pintatzeko.
- 2016/59 zenbakia, 2016ko uztailaren 7koa, 300 euroko isuna jarri ziona P.S.i,
katedun trakzioko makina ibiltzeagatik pistatik gomarik gabe eta oholekin babestu
gabe, hormigoian kalteak sortuz.
- 2016/60 zenbakia, 2016ko uztailaren 7koa, 300 euroko isuna jarri ziona
J.M.V.ri, katedun trakzioko makina ibiltzeagatik pistatik gomarik gabe eta oholekin
babestu gabe, hormigoian kalteak sortuz.
- 2016/61 zenbakia, 2016ko uztailaren 11koa, Alkatetzaren eginkizunen
eskuordetzea ebatzi zuena, abuztuaren 22tik 27a arte.
- 2016/62 zenbakia, 2016ko uztailaren 13koa, *Mendrasa* parajea oihan-
aprobetxamendua ateratzeko, P.J.S.ek ordaindutako fidantza itzultzea erabaki zuena.
- 2016/63 zenbakia, 2016ko uztailaren 13koa, U.G.i lizentzia eman ziona,
Migellkonekoborda baserriko teilatua erreteilatzeke.
- 2016/64 zenbakia, 2016ko uztailaren 21ekoa, M.J.ari lizentzia eman ziona,
Penta etxeko teilatua eraberritzeko eta terrazako baranda eta 3 leiho aldatzeko.
- 2016/65 zenbakia, 2016ko uztailaren 21ekoa, J.M.ri lizentzia eman ziona,
Joanamaria etxeko eremuko txabola eraberritzeko.
- 2016/66 zenbakia, 2016ko abuztuaren 11koa, "Errandonea" ostatua ixteko
ordutegia luzatu zuena abuztuaren 12rako.
- 2016/67 zenbakia, 2016ko abuztuaren 11koa, "Errandonea" ostatua ixteko
ordutegia luzatu zuena bestetarako.
- 2016/68 zenbakia, 2016ko abuztuaren 22koa, E.L.ri lizentzia eman ziona,
Makutsoa etxeko sotoan txerritegiak botatzeko.
- 2016/69 zenbakia, 2016ko abuztuaren 22koa, I.J.ri lizentzia eman ziona,
Luisenea etxeko garajeko teilatua eraberritzeko.
- 2016/70 zenbakia, 2016ko irailaren 1ekoa, J.L.ri lizentzia eman ziona, baratzen
(4 poligonoko 175 partzela) urak eramandako pareta berregiteko.
- 2016/71 zenbakia, 2016ko irailaren 1ekoa, M.M.ri lizentzia eman ziona,
Azkatea baserriko atarian porlana botatzeko (150 metro karratu).
- 2016/72 zenbakia, 2016ko irailaren 1ekoa, L.B.ri lizentzia eman ziona *Makutso*
ardibordako 3 leiho zabaldu eta atea irekitzeko obren hasiera-epea luzatzeko eta
solairuko egurra aldatzeko eta paretako zuloak tapatzeko.
- 2016/73 zenbakia, 2016ko irailaren 1ekoa, G.F.i lizentzia eman ziona, 2
poligonoko 148 partzelan pista irekitzeko trazatua eta luzaera aldatzeko.
- 2016/74 zenbakia, 2016ko irailaren 1ekoa, J.R.O.ri lizentzia eman ziona,
Martindenea baserriko garajea zenbait konponketa txiki egiteko eta bertan 5 itxitura
jartzeko, txakurtegi bezala erabiltzeko.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- 2016/75 zenbakia, 2016ko irailaren 1ekoa, M.S.i lizentzia eman ziona, *Axerburu* baserrian saneamenduko tutuak konpontzeko.

- 2016/76 zenbakia, 2016ko irailaren 5ekoa, I.J.ri lizentzia eman ziona, *Luisenea* etxean kaldera berria jartzeko eta bere tximinia kanpo aldetik.

6. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisen emaitzak; Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —J.R.O., S.O. eta M.F.L.renak—; Nafarroako Gobernuak eman duen baso-aprobetxamenduko baimena —A.S.i—; Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiaren 593/2016 eta 618/2016 Ebazpenak, baso-lanak egiteko diru-laguntzak onetsi zituztenak; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duen esplotazioen erregistroan izandako mugimendua —M.I.G.ren alta—; Euskarabideari eskatu zaion diru-laguntza.

2. 1368/2016 Ebazpenak, uztailaren 4koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko arauak ezartzen ditu, gazte langabeak lan munduan txertatzen laguntzeko. Idazkariak jakinarazi du Errotan lan egiteko gazte 1 kontratatzeko saiakera egin duela Zubietako Udalak. Inor aurkeztu ez dela ikusirik, aho batez erabaki da E.M.ri egitea kontratua.

3. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Zaborren Batzordea: birziklapen kanpaina, arazoak bilketan.
- Nafarroako Gobernuko ordezkarien bisita *Metro-baserriko* lanak ikustera.
- Joaldun joareak eman zitzaion Nafarroako Julio Caro Baroja Museo Etnologikoari.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 09:40 direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.